



EBAZPENA, 2023KO APIRILAREN 25EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. HORREN BIDEZ EBAZTEN DA 2023-2024 IKASTURTERAKO OSASUN ARRAZIOIAK DIRELA ETA, ZERBITZU-EGINKIZUNAK ETA KLASE-ORDUEN 1/3KO MURRIZKETEN BEHIN-BETIKO ZERRENDAK ARGITARATZEA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2023KO OTSAILAREN 1EKO EBAZPENAREN BIDEZ ARAUTUTAKOA.

185/2010 Dekretua, uztailearen 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzeko denak, bere 12. artikuluan hau dio:

«Irakaskuntzako arrazoiak edo norbere osasun-arazo larriak direla-eta, karrerako funtzionarioek berez dagokiena ez den beste ikastetxe batean lan egin ahal izango dute.

Salbuespen gisa, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango dira odol-ahaidetasuneko lehen mailako senideren batek gaixotasun larria baldin badu, betiere elkarrekin bizi badira eta interesdunaren arreta pertsonala beharrezkoa dela egiaztatzen bada.

Era berean, salbuespen gisa, eta gehienez ere bi urtez, zerbitzu-eginkizunak eman ahal izango zaizkie gaixotasun larria duten pertsonari, betiere hori bidezko mediku-txostenaren bidez egiaztatzen bada. Eginkizun horiek izan daitezke zuzenean eskolak ez emateko.

Zerbitzu-eginkizunak ikasturte osorako izango dira eta interesdunak ezingo die horiei uko egin. Urtero, ikasturtean ikasturteko zerbitzu-eginkizunen deialdiak egingo dira Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez».

71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena, bere 10 k) artikuluan, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren eskumena zerbitzu-eginkizunak ematea dela ezartzen da.

2023ko otsailaren 1eko Ebazpenaren bidez, osasun arrazoi larriengatik eta senideen gaixotasun larriengatik 2023-2024 ikasturterako deialdia argitaratu zen.

2023ko otsailaren 1eko Ebazpenaren zazpigarren atalean ezartzen denaren arabera, deialdi honetan exijitzen diren baldintzak betetzen dituzten eta garaiz eta forman aurkeztu diren eskabideak Balorazio-batzordeak baloratuko ditu.

Era berean, ebazpenaren zortzigarren atalak esandakoari jarraiki, Langileak Kudeatzeko zuzendariak deialdia ebatziko du dagokion Balorazio-batzordeak egindako ebazpen-proposamena oinarri hartuta eta interesdunek egindako alegazioak aztertu ondoren.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak 106. artikuluan arautu du zerbitzu-eginkizuna, eta lanpostuak betetzeko aparteko era bat bezala taxutu.

Horiek horrela, behin eskaerak aztertuta eta Balorazio-batzordeak egindako proposamena ikusita, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak ezartzen duen eskumenaz baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Argitaratzea Hezkuntza Saileko langileak kudeatzeko zuzendariaren Ebazpena, 2023-2024 ikasturterako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduaren heren bateko murrizketak baimentzea behin betiko ebatzen duena. Deialdia 2023ko otsailaren 1eko Ebazpenaren bitartez egin zen.

Bigarrena.- Argitaratzea ebazpen honen I. eranskina. Eranskin horretan 2023-2024 ikasturterako baimendutako zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduaren heren bateko murrizketak ageri dira.

Hirugarrena.- Argitaratzea ebazpen honen II. eranskina. Eranskin horretan ez onartutako eskabideak eta ukatzeko arrazoiak ageri dira.

Laugarrena.- Txosten mediko negatibo baten ondorioz zerbitzu-eginkizunetarako eskaera ukatu zaien pertsonak Zerbitzu Medikoek egindako txostenaren arrazoiak ezagutu ahal izango dituzte, eskaera aurkezteko erabili zuten aplikazio beraren bitartez. Horretarako, berriro gaituko da *Hezigunea* ingurunean.

Bosgarrena.- Egiteko akatsengatik edo akats materialengatik alegazioak egiteko epean edukiari buruzko erreklamazioa aurkeztu dutenek, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu behar dute, mediku-txosten berriak bidalita.



Seigarrena.- Emandako zerbitzu-eginkizunak, oro har, hutsik dauden lanpostuak betetzeko ematen dira, eta interesdunek ikasturte hasierako esleipenera joan behar dute, dagokien txandan, lanpostua aukeratzera, hurrengo kasu honetan izan ezik: Osasun-arrazoi larriengatik edo, salbuespen gisa, behar adina egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik zuzenean eskolak ez emateko zerbitzu-eginkizunak baimentzea.

Hori guztia, deialdiaren zortzigarren atalean ezarritakoa eragotzi gabe.

Zazpigarrena.- Argitarapena webgune honetan egingo da: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>

ERREKURTSOAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, bere 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 25a.

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA